

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Enpresaren Ekonomia USE 2019

www.ehu.es





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

EUSKADIKO ALTZARIEN SEKTOREAK BULEGO BAT IREKI DU MEXIKON

Kanpoaldera begiratzea. Hori da altzarien sektorearen **estrategia** oraindik bizirik dagoen krisia betiko lurperatzeko, gogor jotzen baitu oraindik krisiak marka historikoetan, hala nola Xey enpresan (Zumaia). Espainiako salmenten jaitziera izugarriak ikasbide argi bat utzi zuen: edo esportatu egiten dugu edo itxiera dator.

Habic **klusterrak** sektoreko enpresa gehienak elkartzen ditu, eta azkartu egin du **kanpo-sustapena**. Hala, aste honetan Mexiko Hirian irekiko du atzerriko lehen bulego komertziala, non 13 euskal enpresak beren lanak aurkeztuko baitituzte.

Ahalegin handia egingo da. Euskal Altzarien “erakusleihoa”, Basque Living México bataiatua, hiriko eraikin nabarmen batean kokatuko da. Haren funtzioa hau izango da: herrialde berrietan barneratu nahi dituzten **enpresei** laguntza ematea, ekipamendu-proiektuak identifikatzea, bezeroei bisitak egitea eta **merkatu-azterketak** egitea.

Galderak:

- Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- Azaldu ezazu zer garrantzi duen euskal enpresentzat internazionalizazioak.

A2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

POZTIB S.COOP. enpresak esnekiak ekoizten ditu. Urtean 270.000 litro esne kontsumitzen ditu ekoizpenean. Eskaera egiten duen bakoitzean, hilabete-erdirako adina eskatzen du, eta, gainera, 1.500 litroko segurtasuneko stock-a mantentzen du. Hornitzaileek 5 egun behar dituzte eskaera egiten zaienetik esnea eraman arte. (urtea = 360 egun)

Datu horiek kontuan izanik, kalkula itzazu puntu hauek, eta azaldu emaitzen esanahia:

- Eskaera-puntua.
- Biltegiko batez besteko stock-a.
- Errotazio-indizea.
- Batez besteko egonaldi edo periodoa biltegian.
- Irudikapen grafikoa.
- Zer gertatuko litzateke biltegian bigarren eskaera 3 egun beranduago iritsiko balitz? Irudika ezazu grafikoan.



A3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Aukeratu erantzun zuzena. Erantzun zuzen bat besterik ez dago galdera bakoitzerako.

1. Aukera hauetatik, zein ez da aldagai makroekonomikoen artean sartzen?
 - a) Inflazioa.
 - b) Langabezia.
 - c) Lehiakortasuna.
2. Sozietate anonimo bateko bazkideek honekin erantzuten dute:
 - a) Sozietate horri egindako ekarpenarekin.
 - b) Beren ondare partikularrarekin.
 - c) Beren ondare osoarekin, solidarioki.
3. Itopuntuaren (errentagarritasun-atalasearen) azpitik:
 - a) Enpresak galerak ditu.
 - b) Enpresak mozkinak ditu.
 - c) Enpresak porrot egiten du.
4. Tamaina handiko enpresen aldean, ETE-ek (enpresa txiki eta ertainek) ezaugarri hauek dituzte:
 - a) Malguagoak dira, eta hobeto moldatzen dira ingurunera.
 - b) Teknologia aurreratuenak erabiltzen dituzte.
 - c) Finantzazio-aukera hobeak dituzte.
5. Berreskuratze-epa (*payback*) honi esaten zaio:
 - a) Hornitzaileei ordaintzeko behar den batez besteko aldiari.
 - b) Bezeroei kobratzeko behar den batez besteko aldiari.
 - c) Proiektu baten hasierako inbertsioa berreskuratzeke behar den batez besteko aldiari.
6. Enpresak bezeroekin dituen kreditu-eskubideak saltzen lortzen den finantzazio-sistema honako hau da:
 - a) Factoring-a
 - b) Leasing-a
 - c) Renting-a
7. Jarduera-tasa % 54 izateak hau esan nahi du:
 - a) Landunen kopurua biztanle kopuru osoa baino % 54 txikiagoa direla.
 - b) Herrialdeko biztanleen % 54k lana duela.
 - c) Lan egiteko adinean dauden 100 biztanletik 54k lana dutela edo lan bila ari direla.
8. Ondasun libreek ezaugarri hauek dituzte:
 - a) Erabilgarritasun handia dute, eta merkatu librean daude.
 - b) Ugariak dira, eta behar ditugun beste daude.
 - c) Beharrezkoak dira (gure beharrak asetzen dituzte), eta urriak dira.
9. Hau da ondarearen funtsezko ekuazioa:
 - a) Ondare garbia = Aktiboa + Pasiboa.
 - b) Aktiboa = Ondare garbia + Pasiboa.
 - c) Pasiboa = Ondare garbia - Aktiboa.



10. Enpresa baten merkatu-kuota jaitsi egiten da, baldin eta...

- Enpresaren salmentak jaitsi eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean jaisten badira.
- Enpresaren salmentak handitzen badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean handitzen badira.
- Enpresaren salmentak lehiakideenak baino gehiago jaisten badira.

A4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu

Herriko zinema zaharrari bultzada bat emateko, honako inbertsio-aukera hauek dituzu:

A aukera: Krispetak egiteko makina, hasieran 105.000 €-ko inbertsio bat behar lukeena. Eta bi tamainatako krispetak salduko genituzke. Tamaina erraldoia 5 €-an eta tamaina normala 3 €-an. Kostu aldakor unitarioak prezioaren erdia izango lirateke, hau da, 2,5 € tamaina erraldoian eta 1,5 € normalean. Kostu finkoak, guztira, inbertsio osoarentzat 2.500 € izango lirateke urtero. Eta hurrengo hiru urteetan, 8.000 erraldoi eta 12.000 normal salduko lirateke urte bakoitzean. Hirugarren urtearen amaieran, 19.000 €-an salduko litzateke makina.

B aukera: Txokolate eta gozokiak ematen dituen makina bat, 95.000 €-ko hasierako inbertsioa eskatzen duena. Hurrengo hiru urteetan, kutxa-fluxu hauek lortuko lirateke: 35.000 €, 45.000 € eta 18.000 €. Bigarren urtean, 6.500 €-ko mantentze-gastuak aurreikusten dira. Eta hirugarren urtearen bukaeran, makina 12.000 €-an salduko litzateke.

Kontuan izanda inbertsioentzat, eta inflaziorik gabe, % 4ko errentagarritasuna eskatzen dela eta urteko inflazio-tasa metatua % 2 izango dela:

- Zer inbertsio aukeratu beharko litzateke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (*payback*) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

A5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu

TXEKIT SA (sozietate anonimoa) enpresa esportazio- eta inportazio-enpresa bat da, eta produktu jakin baten 125.000 unitateko lote bat erosi du, unitateko prezioa 5 € izanik. Gainera, lotea erosteagatik, gastu hauek ere izan ditu: garraioa, 1.050 €; aseguruia, 1.000 €; eta ontziak eta bilgarriak, 2.500 €. Erosketaren kontzeptu guztiei % 21eko BEZa (jasandakoa) gehitu behar zaie.

Kalkula ezazu:

- Produktuaren lotearen erosketa-prezioa.
- Fakturaren prezioa.
- Adierazi zer diferentzia dagoen produktuaren erosketa-prezioaren eta sozietate anonimo horrentzako fakturaren zenbatekoaren artean.



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

PETUKA enpresak bi produktu ekoizten ditu: hodiak eta panelak. Enpresak urtean 32.000 € behar ditu lokala, instalazioak eta soldata finkoak ordaintzeko. Hodi bakoitzeko 2,6 € behar ditu erabiltzen dituen materialak, argindarra eta beste batzuk ordaintzeko, eta panel bakoitzeko, berriz, 6 €. Merkatuan, hodiak 15 €-ko prezioa du, eta panelak 12 €. Kostu finkoen esleipenean, hodie % 60 dagokie eta panelei % 40.

Kalkula ezazu:

- Zenbat hodi ekoitzi beharko luke ez izateko ez galerarik ez irabazirik? Eta zenbat panel?
- Urte batean 5.000 hodi eta 3.200 panel ekoitzez gero, zein izango litzateke emaitza?
- Urte batean panelik ekoitziko ez balu, hau da, hodiak bakarrik fabrikatuko balitu, zein izango litzateke itopuntua? Azaldu esanahia.
- Adierazi c) puntua grafikoki.

B2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

IMAK SAL enpresak 32 langile izan zituen iaz; lan-egutegia 230 egunekoa izan zen, eguneko 8 orduz lan eginez, eta enpresak 450.000 unitate ekoitzi zituen. Aurten, 30 langile izan ditu, 235 eguneko lan-egutegiarekin eta egunean 8 orduz lan eginez, eta enpresak 479.400 unitate ekoitzi ditu.

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- Urte bakoitzean lorturiko produktibitatea. Azaldu ezazu lortutako datuen esanahia.
- Zenbat igo edo jaitsi den produktibitatea, portzentaje gisa adierazia, eta komentatu emaitza.
- Aurten, sektoreko enpresen produktibitatea 9 unitate/lanordu izan da. Aztertu enpresa honen aurteno produktibitatea sektorekoarekin konparatuta.
- Zenbat ekoitzi beharko luke enpresa honek aurten sektoreko enpresen produktibitate berdina izateko, enpresaren lanordu kopurua aldatu gabe?

B3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

LEDROM SA enpresa oihalen salerosketan aritzen da. Ekitaldi ekonomikoaren amaieran, honako ondare-elementu hauek ditu:

- Laboral Kutxari 5 urteko epean itzuli beharreko 80.000 €-ko mailegua.
- Kutxabanki 10 hilabeteko epean itzuli beharreko 9.000 €-ko mailegua.
- Kontu korrontean 8.000 € ditu.
- Enpresak bere jarduerarako duen lokalak 150.000 € balio du; horietatik 30.000 € lurrari dagozkio.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

5. Biltegian 10.000 €-ko balioa duten oihalak ditu saltzeko.
6. Bulegoko mahai, apal, aulki eta bestelakoek 7.000 € balio dute.
7. Ordenagailuek 3.500 € balio dute.
8. Biltegian dituen oihalengatik oraindik 4.000 €-ko zorra du.
9. Ogasun Publikoarekin, BEZa dela eta, 1.000 €-ko zorra du.
10. Gizarte Segurantzarekin 1.500 €-ko zorra du.
11. Bulegoan bertan, ordainketa txikiak egiteko, 600 € ditu txanpon eta billetetan.
12. Oihalak tintatzeko dituen makinek 9.000 € balio dute.
13. Denda batek oihalak erosi dizkio, eta 5.000 € zor dizkio enpresari.
14. Makina erosi zuenean ez zuen guztiz ordaindu, eta 10 hilabete barru ordaindu beharreko 5.500 € zor dizkio makina saldu zionari.
15. Ibilgetu materialeko elementuek 3.000 €-ko amortizazioa izan dute.
16. Enpresaren kapital soziala: ???
17. Erreserbak: 5.000 €

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren egoera-balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
 - Likidezia.
 - Autonomia.
 - Bermea.
 - Zorpetze osoa.

B4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Kalkula eta azaldu itzazu enpresa honen heltze-aro ekonomikoa eta finantzarioa, datu hauek kontuan hartuz (urte komertziala = 360 egun):

- Fabrikazioaren batez besteko iraupena: 25 egun.
- Urtean lehengaiak 18 aldiz berriztatzen dira biltegian.
- Salmentarako batez besteko epea: 30 egun.
- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea: 50 egun.
- Bezeroei kobratzeko dauden kontuak 12 aldiz berriztatzen dira urtean.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ENPRESAREN EKONOMIA

A AUKERA

A1. GALDERA

a) Testuko hitzen esanahia:

Estrategia: Helburu jakin batzuk lortzeko ekintza-plan orokorra. Kasu honetan, altzari-enpresa batek krisialditik irteteko egin duen ekintza-plana da, esportatzea.

Klusterra: Ekonomia-sektore jakin batean (kasu honetan, altzarien sektorea) interesa duten enpresen kontzentrazio geografikoak dira. Negozio bereko enpresa taldeak, antzeko erronka estrategikoak dituztenak. Aukera ematen diete enpresaburuei, bakarka zein talde gisa, lehiakorrago izateko eta lankidetzan aritzeko.

Kanpo-sustapena: Enpresak bere produktua merkatuan ezagutarazteko, enpresaren irudia indartzeko eta abarretarako egiten dutena.

Enpresa: Ekoizpen-faktoreak (natura-baliabideak, lana eta kapitala) konbinatzen dituen ekoizpen-unitate ekonomikoa. Gerora kontsumitzaileen eskura jarriko diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizten ditu. Kasu honetan, altzari-enpresa bat da.

Merkatu-azterketa: Ingurune orokorrari, lehiakideei eta kontsumitzaileei buruzko informazioa bildu, landu eta aztertzea. Testu honetan, Mexikon.

b) Azaldu ezazu zer garrantzi duen euskal enpresentzat internazionalizazioak.

Arrazoi hauengatik, besteak beste, nazioarteratzen dira euskal enpresak:

- Tokiko merkatuaren ziklo ekonomikoekiko independentzia handitzea.
- Merkatu zabalago baterako sarbidea izatea.
- Irudia hobetzea.
- Errentagarritasuna handitzea.
- Produkzio-ahalmena handitzea.
- Merkataritza- eta hornidura-arriskuak dibertsifikatzea.
- Kostuak txikiagotzea eta produkzio-efizientzia handitzea.

A2. GALDERA

a) $EP = (270.000/360) \times 5 + 1.500 = 5.250$. Biltegian 5.250 litro esne geratzean egin behar da eskaera.

b) $BBSM = (270.000/24) / 2 + 1.500 = 7.125$ litro esne. Biltegian, batez beste, 7.125 litro esne egoten dira.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

B Aukera

	35000	45000	18000
		Gastuak -6500	balioa 12000
	35000	38500	30000
0	1	2	3

-95000

interesa
1,04*1,02
1,0608

$$BEG A = -150000 + \frac{35500}{1,0608} + \frac{35500}{(1,0608)^2} + \frac{54500}{(1,0608)^3} = 5.668,35$$

$$BEG B = -95000 + \frac{35000}{1,0608} + \frac{38500}{(1,0608)^2} + \frac{30000}{(1,0608)^3} = -2.661,20$$

A	105000	35500	54500	12	X= 7,486239	Epea 2 urte eta 7,48 hilabete
		35500	34000	X		
		34000				
B	95000	35000	30000	12	X= 8,6	Epea 2 urte eta 8,6 hilabete
		38500	21500	X		
		21500				

- a) A aukera, errentagarritasuna duen bakarra delako (B aukerak galerak ditu)
- b) A aukera, inbertsioa lehenago berreskuratzen duelako.
- c) BEGa, diruaren balioa (inflazioa) eta errentagarritasuna kontuan hartzen dituelako eta, gainera, dirua berreskuratzen ondorengo fluxuak ere kontuan hartzen dituelako.

A5. GALDERA

Faktura	
Kontzeptua	€
Produktuaren prezioa	625.000
Gastuak (garraioa, aseguruak, ontziak eta bilgarriak)	4.550
Erosketa-prezioa	629.550
BEZa (% 21)	132.205,5
Faktura, guztira	757.205,5



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

a)

$$\text{Erosketa-prezioa} = (125.000 \times 5) + 1.050 + 1.000 + 2.500 = \mathbf{629.550 \text{ €}}$$

b)

$$\text{Fakturaren zenbatekoa} = 629.550 + (629.550 \times 0,21) = \mathbf{757.205,5 \text{ €}}$$

c) SA honen erosketa-prezioa kalkulatzeko ez da kontuan hartzen BEZaren balioa, zeren eta enpresa erosle horrek BEZarengatik ordaindu beharrekoa ez baita jotzen inoiz gastutzat. Hau da, enpresa erosle horrentzat BEZaren kopurua zerga arloan zenbateko kengarri bat da. Aldiz, enpresa horrek ordaindu beharreko fakturan bai agertuko da jasandako BEZaren zenbatekoa, ezinbestez, faktura horren zenbateko osoaren elementu bat delako.

2019



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

B AUKERA

B1. GALDERA

a) HODIAK:

Kostu finkoak: 32.000ren % 60 = 19.200 €

Itopuntuaren (errentagarritasun-atalasearen) kalkulua:

$$q = \frac{KF}{prezioa - KAu} = \frac{19200}{15 - 2,6} = 1548,39 \text{ hodi}$$

PANELAK:

Kostu finkoak: 32.000ren % 40 = 12.800 €

Itopuntuaren (errentagarritasun-atalasearen) kalkulua:

$$q = \frac{KF}{prezioa - KAu} = \frac{12800}{12 - 6} = 2133,33 \text{ panel}$$

1549 hodi eta 2134 panel produzitu eta saldu beharko lituzke ez etekinik ez galerarik ez izateko. Kopuru horiek baino gehiago salduz gero, etekinak izango lituzke.

b) Emaidza = Diru sarrerak - kostu osoa = $p \times q - (KF + KAu \times q)$

5000 hodi ekoitziz gero, emaitza hau lortuko luke:

$$15 \times 5.000 - (19.200 + 2,6 \times 5.000) = 42.800 \text{ €}$$

3200 panel ekoitziz gero, emaitza hau lortuko luke:

$$12 \times 3.200 - (12.800 + 6 \times 3.200) = 6.400 \text{ €}$$

Etekina guztira: 42.800 + 6.400 = 49.200 €

c) Hodiak bakarrik ekoizten baditu, kostu finko guztiak hodiekin estali beharko ditu, beraz, itopuntua hau izango litzateke:

$$q = \frac{KF}{prezioa - KAu} = \frac{32000}{15 - 2,6} = 2580,65 \text{ hodi}$$


PETUKA enpresak gutxienez 2.581 hodi fabrikatu eta saldu beharko lituzke etekinak izaten hasteko; kopuru horretara helduko ez balitz, galerak izango lituzke.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Gutxienez 1549 hodi eta 2134 panel ekoitzi eta saldu behar lituzke ez mozkinik ez galerarik ez izateko. Kopuru horietatik gora salduz gero, mozkinak izango lituzke.

d)



B2. GALDERA

a) Ekoizkortasuna = Ekoizpena / Lanorduak

laz = $450.000 / (32 \times 230 \times 8) = 450.000 / 58.880 = 7,64$ unitate ekoitzi ditu langile bakoitzak lanordu batean batez beste.

Aurten = $479.400 / (30 \times 235 \times 8) = 479.000 / 56.400 = 8,50$ unitate ekoitzi ditu langile bakoitzak lanordu batean batez beste.

b) $(\text{Aurten} - \text{laz} / \text{laz}) \times 100 = (8,50 - 7,64 / 7,64) \times 100 = \% 11,26$

Ekoizkortasuna igo egin da. Aurten, iaz baino % 11,26 handiagoa izan da: kostu/unitate ratioa txikiagoa izan da, baliabideak hobeto aprobetxatu dituelako.

c) $\text{IMAK} = 8,50$

$\text{SEKTOREA} = 9,00$

$(\text{IMAK} - \text{SEKTOREA} / \text{SEKTOREA}) \times 100 = (8,50 - 9 / 9) \times 100 = -\% 5,56$

IMAK enpresak sektorearena baino ekoizkortasun txikiagoa du: $-\% 5,56$. Kostu/unitate ratioa sektorearena baino handiagoa da; beraz, ez da ondo aprobetxatzen ari ekoizpen-baliabideak.

d) Ekoizkortasuna = Ekoizpena / Lanorduak

$9 = \text{ekoizpena} / (30 \times 235 \times 8)$

$\text{Ekoizpena} = 56.400 \times 9 = 507.600$ unitate



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

B3. GALDERA

a)

<u>AKTIBOA</u>	<u>ONDARE GARBIA eta PASIBOA</u>
AKTIBO EZ-KORRONTEA.....166.500	ONDARE GARBIA.....89.100
IBILGETU UKIEZINA	FONDO PROPIOAK.....89.100
IBILGETU MATERIALA.....166.500	Kapital Soziala.....84.100
Lurrak eta ondasun naturalak.....30.000	Erreserbak.....5.000
Eraikuntzak.....12.0000	PASIBO EZ-KORRONTEA.....80.000
Makineria.....9.000	EPE LUZEKO ZORRAK..... 80.000
Altzariak.....7.000	Kreditu-erakundeekiko
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak. 3.500	epe luzeke zorrak.....80.000
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua...(-3.000)	PASIBO KORRONTEA.....21.000
AKTIBO	EPE LABURREKO ZORRAK.....14.500
KORRONTEA.....23.600	Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak9.000
IZAKINAK.....10.000	Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak5.500
Salgaiak.....10.000	HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA
ZORDUN KOMERTZIALAK ETA	ORDAINTZEKO BESTELAKO KONTUAK
KOBRATZEKO BESTELAKO KONTUAK6.500
.....5.000	Hornitzaileak.....4.000
Bezeroak.....5.000	0
0	Ogasun publikoa, hartzekoduna1.000
EPE LABURREKO FINANTZA-	Gizarte Segurantzako organismoak,
INBERTSIOAK	hartzekodunak.....1.500
ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO	
LIKIDO BALIOKIDEAK.....8600	
Bankuak eta kreditu erakundeak,	



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ageriko euroak.....8.000	k/k,	
Kutxa, euroak.....600		
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA
GUZTIRA.....190.100		GUZTIRA190.100

- b) Maniobra-fondoak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen du.

Maniobra-fondoa = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

$$MF = 23.600 - 21.000 = (89.100 + 80.000) - 166.500 = 2.600 \text{ €}$$

Maniobra funtsa positiboa denez, enpresaren finantza-egoera egokia da. Pasibo ez-korronteak aktibo korronteko 2600 € finantzatzen ditu, aktibo korronteko elementu iraunkorrak hain zuzen; adibidez, biltegiko segurtasuneko stocka.

- c) Ratioak:

$$LIKIDEZIA = \frac{\text{Aktibo Korrontea}}{\text{Pasibo Korrontea}} = \frac{23600}{21000} = 1,12$$

$$AUTONOMIA = \frac{\text{Ondare Garbia}}{\text{Pasibo Osoa}} = \frac{89100}{80000 + 21000} = 0,88$$

$$BERMEA = \frac{\text{Aktibo Osoa}}{\text{Pasibo Osoa}} = \frac{190100}{80000 + 21000} = 1,88$$

$$ZORPETZEA = \frac{\text{Pasibo Osoa}}{\text{Ondare Garbia}} = \frac{80000 + 21000}{89100} = 1,13$$

Likideziari dagokionez, LEDROM enpresak, epe laburrera zor duen euro bakoitzeko 1,12 euro ditu aktibo korrontean. Erreferentzia-tartean dago, 1 baino



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

handiagoa baita; beraz, enpresak ez du ordainketa-etendurarako arriskurik, epe laburreko zorrak ordaindu ahalko ditu.

Bermeari dagokionez, ratioa 1,88 izanik, enpresak zorretan duen euro bakoitzeko 1,88 euro ditu aktiboan, beraz ez du kiebra jotzeko arriskurik.

Autonomia 0,88 eta zorpetzea 1,13 izanik, enpresa honek ondare garbian duen euro bakoitzeko 1,13 ditu zorretan. Erreferentzia-tartetik kanpo daude biak. Horrek esan nahi du enpresak ez dituela orekatuak zorrak eta ondare garbia, larregi zorpetuta dago. Beraz, ez du autonomiarik, kreditu-erakundeen mende baitago.

B4. GALDERA

$$HE = BaHb + BaHe + BaHs + BaHk$$

$$BaHe = 25 \text{ egun}$$

$$Mb = 18 \quad BaHb = 360/18 = 20 \text{ egun}$$

$$BaHs = 30 \text{ egun}$$

$$BaHo = 50 \text{ egun}$$

$$Mk = 12 \quad BaHk = 360/12 = 30 \text{ egun}$$

Batez besteko heltze-aro ekonomikoa

Batez besteko heltze-aro ekonomikoa: ustiatze-zikloak irauten duen denbora osoa, materialak biltegian sartzen direnetik bezeroen fakturak eta letrak kobratzen diren arte.

$$HAE = BaHb + BaHe + BaHs + BaHk = 20 + 25 + 30 + 30 = 105 \text{ egun}$$

Enpresak 105 egun behar ditu, lehengaiak erosten dituenetik, salmentak kobratu ahal izateko.

Batez besteko heltze-aro finantzarioa

Batez besteko heltze-aro finantzarioa: enpresak ekoizpen-prozesuan inbertitu duen dirua berreskuratzeko behar duen denbora; hau da, enpresak osorik finantzatu behar duen egun kopurua

$$HA = HAE - BaHo = 105 - 50 = 55 \text{ egun.}$$

Enpresak 55 egun finantzatu behar ditu hornitzaileen finantzaketaz kanpo, hornitzaileei ordaintzen zaienetik inbertsioa berreskuratu arte 55 egun pasatzen baitira.